

Aurkezpena

2009ko neguan eta udaberrian Nafarroako bibliotekariok borroka bizian aritu ginen zen—tsuraren aurka. Estu eta larri bizi izan ginen egun haietan, izan ere, ez baita batere xamurra boterean diharduenari aurre egitea. Halaz ere, ez genuen zalantza izpirik izan, jakin bagenekielako jokoan zegoena gure independentzia profesionaletik haratago zihoala. Hasiera-hasieratik ez ginen aritu eskubide baten alde egiten dutenen gisara —gure lanean inongo politikarik muturra sar ez dezan, alegia—, baizik eta eginbeharrekoa bete egiten dutenen antzera. Liburuzainen modura baino herritar arduratsuen gisan jokatu genuen, zeinek ez dute zentimetro bat bera ere atzera egin nahi adierazpen eskubideari dagokienean; izan ere, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasota baitago eskubide hau eta gure aurreko belaunaldiek lortua baitzuten atsekabe handien kontura.

Guztia zinegotzi baten agindu batekin hasi zen. Beren ildo editorialekin ados ez zegoenez, zinegotziaren agindu honek bi egunkariren harpidetza bertan behera uzteko manatzen zuen. Zoritxarrez, demokrazia honetako hogeita hamar urtean, hau ez zen honelako egoera batean kausitzen ginen lehenbiziko aldia. Hala ere, aldi honetan bi gauza ziren berriak: batetik, aginduaren aurka erakutsi genuen erabakitasun tinkoa, eta bestetik, nola azkenean mozo-rrotu egin zuten zentsura-gertakari garbi bat gastuak murriztearen argudio ziniko batekin. Behinik behin, aringarri bat gelditzen zaigu: gaur egun zentsura ez da ausartzen bere izena ozenki aldarrikatzeko, eta are gehiago, zentsura egiten dutenek beraiek ere badakite beren jarduna badela lotsagarria eta lotsakorra.

Duintasunezko ikasbide paregabea da hilabete haietako gertakizunen kronika zorrotz eta zehatza. Horrexegatik, borroka larderiatsu eta fantasmagoriko honen alderdi guztiak ongien ezagutu zituen pertsonari eskatu diogu kronika hau egiteko, hau da, Asun Maestrori —Asnabiko presidentea—: makina bat aldiz debate serio batean parte hartzeko aukeraren mira izan dugu, baina errealitatea oso bestelakoa izan zen; izan ere, ez zen inor agertu zentsoreen bidegabekeria aho betean defendatzeko eta, gainera, hainbat komunikabidek isiltasun gaizkide bati eutsi egin zioten.

Asunek eginiko kronikak, bere-berezko duen estilo zehatzez eta kartsuz idatzia, hartzen du zenbaki honen parte zabala eta, aurkezpen honen irakurleak gaurgero susmatua izanen duenez, berezitasun batzuk ere badauzka. Lehenengo aldia baita gure aldizkaria bi azalekin ateratzen dela plazara, beharbada hau ere lehenengo aldia baita bi gai biziki inportanteak lantzen ditugula batera eta sakonki, eta ez genuen bata bestearen itzalpean utzi nahi.

Zenbaki honek, esaten ari garen bezala, zentsurarena du lehendabiziko gaia.

Asunen “La fragilidad de la biblioteca pública” izeneko kronikari osagarria eta hitzaurrea egite aldera, Blanca Calvori eskatu genion artikulua bat egin zezan. Honen bidez bilatzen genuena zen gure mobilizazioak testuinguru zabalago batean paratzea eta ekintzok deontologia profesionaleko zein herritarren etikako koordinatuetan kokatzea, beti esparru horixetan aritu bai-

kara. Gutariko askoentzat Blanca Calvo bada eta izan da erreferente etiko eta profesional bat. Hau dela eta, zorioneko eta harro sentitzen gara bere sinaduraz gozatzear orrialde hauetan.

Sormenezko idazketa-tailerrena da 21.garren zenbakiaren aitzakian landu dugun beste gaia. Fenomeno honen azken urteotako boomak galdegiten zigun berari toki bat egitea gure aldizkarian. Xede honekin, zenbait idazle edota maisu gonbidatu ditugu tailer hauen izaeraz gogo-eta egitera. Beren laguntza dela medio, gure esker ona erakutsi nahi diegu honako lagunei: Eloy Tizóni (Hotel Kafka), Víctor García Antóni (Fuentetaja), Roberto Valenciari (Uhartre Buldain Fundazioa), Mikel Santos marrazkilari eta irudigileari, Espido Freire, Luisa Etxenike, Marina Aoiz eta Maite Pérez Larumbe idazleei, Regina Salcedori (Iruñeko Kultura-Etxeetako sormenezko idazketa-irakaslea), Pedro Charrori (garai batean irakasle izan zena NUPeko ikastaroetan), Víctor Morenori (gai honen gaineko liburu aunitzen egilea) eta Bea Cantero gure lankideari (Noaingo liburutegia), bere cronopios-tailerraz mintzatzen zaiguna. Bestalde, tailer hauetako ikasleen ikuspegia eskaintzen digute bai Ernesto Marurik (Ramiro Pinillaren tailerreko partaide dena), baita Bea Lacalle gure lankideak ere.

Zenbaki honen hirugarren atalak *Entresijos* du izena. Zenbakirik zenbaki zabalera eta itxuraz aldatuz joan den arren, atal hau lehenengo zenbakitik bertatik agertu ohi da TKn, eta beti asmo berarekin: Elkartearen eta elkarkideen ekintzen oihartzuna izatea.

Orobat, zenbaki honen *Entresijos* atalak sail berri bat dakar. Sail honek *Semblanzas* du izena eta oso gogokoa dugu. Izan ere, gure hiru lankidek erretiroa hartu berri dute —Carmen Rosek, Asun Bojek eta Menchu García Escribanok— eta, arrazoi horrexegatik, jardunean diren beste hiru lankide —Clara Flamarique, María Ángeles Colomo eta Sonia López— beraiekin elkartu dira eta hainbat iritzi helarazi dizkigute.

6

Halaber, tarte bat eman diegu Beriaingo zein Azkoiengo instalazio berriei; Iruñeko Liburu Azokan izan genuen parte-hartzeari, Nafarroako Unibertsitate Publikoko udako ikastaro baten mahai-inguru batean izaniko presentziari; Aurizberriko topaketari eta, azkenik, azpimarragarriak iruditu zaizkigun bi egintzei: Iruña-Yamaguchi zein Iruña-Sanduzelai biblioteka publikoek burutu dituztenak azken hiruhileko honetan. Lehenengoari Yamaguchi izena datorkio bera kokatuta dagoen parkearen izenetik, eta parkeari, berriz, Iruñearekin aspaldian senidetutako hiri japoniar batetik. Hau guztia kontuan harturik, ez da harritzekoa egiaztatzea biblioteka hau dela Nafarroako Sarekoenetan Japoniari buruzko argitalpen gehien dituena, hala nola ospetsu bilakatu dela gure hirira hurbildu dituelako herri hartako zenbait ohitura, besteak beste, kamisibaia eta komikiekiko grina. Honela bada, joan zen urrian eta bi egunez, Nacho Etxegarayk bere artikuluan adierazten digun moduan, liburutegi honetako erabiltzaileek aukera sorta izan zuten kasik Japonian bezala sentitzeko; izan ere, bertan tearen zeremonian partaide izan ziren, ikebenez eta zen lorategiez gozatu zuten, sushi dastatu zuten, haiku-tailer batean parte hartu zuten, haiga erakusketa bat ikusgai izan zuten...

Bere aldetik, Sanduzelaiko bibliotekako lankideek (artikulu baten bitartez kontaktzen digute Josean Gómez Manriquek eta Pablo Azpirozek), abaguneari eta jendea benetan kezkatuta duenari erreparaturik, hainbat ekimen prestatu dituzte lan munduak liburutegian duen isla nabarmentzeko. Xede horrekin osatu dute bibliotekako gaiaren gaineko materialen gida bat

—nobelak, komikiak, filmak eta abar—, antolatu dute hitzaldi pare bat eta gidako zenbait pelikulen emanaldi ziklo bat ere prestatu dute.

Urtebetetik hona Sophy Villegas bihurtu da Iruñeko Kartzelako irakurketa-klubaren koordinatzailea. Orrialde hauetan zehar azaltzen digu nolako harremana duen presoekin, zer-nolako jarduerak egiten dituzten eta zein inportantea den beraientzat kanpoaldearekiko hari hau, idazleek eta liburuak osatzen dutena alegia.

Azkenerako utzi dugu Ana Urrutia lankideak idatzitako artikulua. Uda honetan bidaia egin du *bidaia ororen amaiaren* paradigmatzat har genezakeen bi lekutara: Colliurera eta Portboura. Honek desenkusatu du paralelismo bat moldatzeko Antonio Machadoren eta Walter Benjaminen bizitzen zein lanen artean. Artikuluak harri eta zur utziko du irakurlea. Hain dira antzekoak bi gizon handi hauen interesak eta obsesioak, ezen harritzekoa baita biek elkar ez ezagutu izana eta ehortzita egotea horren hurbil bata bestearengandik —kilometro gutxiko tarte batek berezirik muga bereko alde banatan eta urtebeteko tartean hilik oraindik zaharrak ez zirela—. Bi gizon jakintsu eta benetan onak zendu ziren, nekaturik, ahiturik, gogogabeturik, zentzugabekeriari eta fanatismoari ihesean zihoazela. Garai hartako gertakizunik itzul ez dadin, apirileko goiz batean ehunen bat bibliotekari elkartu ginen Iruñeko Udalaren aitzinean *zentsurarik ez* esanez. Historian zehar beren ideiak direla kausa beste batzuk eraso egin dituztenak, aurretik hasiak zirelako beren artikulua eta liburuak debekatzen saiatzen... eta ez dugu atzera bueltatu nahi.